



**Espediente zk./Nº Expediente: 2020IGOB0025**

**Gai/Asumto: 2020/12/15 Tokiko Gobernu Batzarra Telematikoa/Junta de Gobierno Local Telemática  
15/12/2020**

**Tokiko Gobernu Batzarra 2020ko abenduaren 15an eginiko ohiko bilkura telematikoari dagokion akta.**

2020ko abenduaren 15eko 09:15ak zirela, modu telematikoan (martxoaren 31ko 11/2020 EDLk 7/1985 Legeko 46. artikuluan sortutako 3. atal berriak xedatutakoaren baitan), lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira, guztiak español lurrealdean kokatuak:

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local Telemática celebrada el día 15 de diciembre de 2020.**

Siendo las 09:15 horas del día 15 de diciembre de 2020, en sesión telemática (de acuerdo con lo dispuesto en el nuevo apartado 3 del art. 46 de la Ley 7/1985 introducido por la Disposición Final 2ª del Real Decreto Ley 11/ 2020 de 31 de marzo), se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejalas y Concejales radicados en territorio español:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- Maite Gartzia Ontiveros
- Ion Collar Rioseco

**Elkarrekin Errenteria**

- Maite Gartzia Ontiveros
- Ion Collar Rioseco

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Itziar Ostolaza Galdosek (EH Bildu Orereta/Errenteria).

No asiste excusando su inasistencia, Itziar Ostolaza Galdós (EH Bildu Orereta/Errenteria).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. 2020ko abenduaren 1ean eginiko ohiko bilkura telematikoari dagokion aktaren irakurketa eta onespna, bidezkoa bada.**

Oharrik gabe onartu da.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria Telemática del 1 de diciembre de 2020.**

Se aprueba sin observación alguna.



**2. Proposamena: “2020. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzitarako lagunzei” buruzko deialdiaren inguruan lankidetza hitzarmena onartzea.**

Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Lezoko Udalak Oarsoaldea eskualde modura ezagutzen denaren kideak dira eta 2020ko uztailaren 30ean LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUARI, Errenteriako Udalaren bidez, lagunza ekonomikoaren bi eskaera aurkeztu zizkioten, 2020. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzitarako lagunzei buruzko deialdiarekin bat, 2020ko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zena. Lehenengo eskaera, 1. eta 2. motako laguntzitarako zen, “Enplegua sustatzea” eta “Kontrataziorako laguntzak”, xede zituena eta bigarrena, 4. motako laguntzitarako, “Laneratzen laguntzeko jarduerak”.

2020ko azaroaren 19an eta 2020ko azaroaren 27an Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuko zuzendari nagusiak aldeko ebazenak egin zituen, beraz, Errenteriako Udalari eskatutako diru-lagunza eman zitzaion, enplegua sustatzeko tokiko ekintzitarako diru-laguntzen 2020 deialdiko proiektuak gauzatzeko, bai 1 eta 2. motako lagunzei dagokienez, zein 4. motako lagunzei dagokienez. Aipatutako dirulaguntzen zenbatekoak 1.494.888,81 euro eta 65.280 eurokokoak dira, hurrenez hurren.

2020ko azaroaren 19ko Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuko zuzendari nagusiak emandako ebazenaren baitan Errenteriako Udalari 65.280 euroko dirulagunza eman zitzaion, 64 pertsona laneratzen laguntzeko ekintzak burutu zitzan. Dirulaguntzaren ordainketa baldintzatuta zegoen erakunde onuradunak Lanbiden aurkeztu

**2. Propuesta de aprobación del convenio de cooperación relativo a la convocatoria “ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2020”.**

Los Ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia, son miembros de la comarca conocida como Oarsoaldea, y presentaron con fecha 30 de julio de 2020, a LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, a través del Ayuntamiento de Errenteria, dos solicitudes de ayudas económicas con arreglo a la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2020, convocatoria publicada en el Boletín Oficial del País Vasco del 30 de junio de 2020. La primera de la solicitudes era para las ayudas de tipo 1 y 2, “Acciones de fomento de empleo” y “Ayudas a la contratación”, y la segunda, para las ayudas de tipo 4, “Actuaciones de acompañamiento en la incorporación laboral”.

Con fecha 19 de noviembre de 2020 y 27 de noviembre de 2020 se emitieron Resoluciones favorables de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo por la que se concedieron las subvenciones solicitadas a favor del Ayuntamiento de Errenteria, para la ejecución de los proyectos enmarcados en la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo 2020, tanto en las ayudas de tipo 1 y 2, así como en las de tipo 4. El importe de las citadas subvenciones asciende a 1.494.888,81 euros, y 65.280 euros, respectivamente.

La Resolución de 19 de noviembre de 2020 de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo mediante la cual se concede al Ayuntamiento de Errenteria subvención por importe de 65.280 euros, para realizar actuaciones de acompañamiento en la incorporación laboral de 64 personas, se condicionaba el abono de la subvención a que la



zezan, besteak beste, esleipen kontratua, 2020ko azaroaren 28 baino lehen egina egon behar zuena.

Erreenteriako Udalak ez zuenez giza baliabide eta baliabide material nahikorik diruz lagundutako proiekta diseinatu, koordinatu eta kudeatzeko, beste hiru Udaletako oniritziarekin, 2020ko azaroaren 26ko Alkate Dekretu bidez, Erreenteriako, Pasaiako, Oiartzuneko eta Lezoko Udaletako bitarteko propioa den Oarsoaldea S.A. eskualde-garapeneko agentziari enkargua egin zion proiektuaren garapenerako.

2020ko azaroaren 27ko Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez emandako dirulaguntzari dagokionez, eta 1 eta 2 motako laguntzetarako egindako eskaeraren baitan, lau udalerriek proposatu duten diru-laguntza banaketa hurrengoa da:

#### **ERREENTERIAKO UDALA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 520.609,89 €

#### **PASAIAKO UDALA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 85.699,00 €

#### **OIARTZUNGO UDALA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 99.092,43 €

#### **LEZOKO UDALA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 48.173,90 €

#### **OARSOALDEA:**

- 1 motako kontratazioengatik: 356.508,14€
- 2 motako kontratazioengatik: 348.000,00 €

entidad beneficiaria presentase en Lanbide, entre otros, el contrato de adjudicación, que debía efectuarse con anterioridad al 28 de noviembre de 2020.

El Ayuntamiento de Erreenteria al no contar con suficientes recursos humanos y materiales para las labores de diseño, coordinación y gestión del proyecto subvencionado, con el visto bueno de los otros tres Ayuntamientos, por Decreto de la Alcaldesa de 26 de noviembre de 2020 encargó a la agencia de desarrollo comarcal y medio propio de los Ayuntamientos de Erreenteria, Pasaia, Oiartzun y Lezo; Oarsoaldea S.A., la realización del proyecto.

En relación a la subvención concedida por Resolución de 27 de noviembre de 2020 de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en función a la solicitud presentada para las ayudas tipo 1 y 2, esta es la distribución que han propuesto los cuatro ayuntamientos:

#### **AYUNTAMIENTO DE ERREENTERIA:**

- Por contrataciones de tipo 1: 520.609,89 €

#### **AYUNTAMIENTO DE PASAIA**

- Por contrataciones de tipo 1: 89.699,00€

#### **AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN**

- Por contrataciones de tipo 1: 99.092,43 €

#### **AYUNTAMIENTO DE LEZO:**

- Por contrataciones de tipo 1: 48.173,90 €

#### **OARSOALDEA:**

- Por contrataciones de tipo 1 356.508,14€
- Por contrataciones de tipo 2: 348.000,00 €



TOTALA: 704.508,14 €

**3. sektoreko entitateak 1 motako kontratazioengatik:**

- Gurutze Gorria: 12.450,34€
- Arrastalo: 24.355,16€

**DIRULAGUNTZA GUZTIRA:**

**1.494.888,81 €**

Adierazitakoaren arabera, Oarsoaldea eskualdeko lau udalerrien arteko lankidetza hitzarmen bat egin behar da 2020ko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako diru-lagunten deialdiaren baitako proiektuak gauzatzen laguntzeko.

TOTAL: 704.508,14 €

**Entidades del 3. sector por contrataciones de tipo 1:**

- Cruz Roja: 12.450,34€
- Arrastalo: 24.355,16€

**SUBVENCIÓN TOTAL:**

**1.494.888,81 €**

De conformidad con lo mencionado, procede formalizar entre los cuatro ayuntamientos de la comarca Oarsoaldea un convenio de cooperación en la ejecución de los proyectos enmarcados en la convocatoria de ayudas para Acciones Locales de Promoción de Empleo 2020

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

\* Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea

\* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.

\* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea

ete da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55-62 artikuluetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47 eta hurrengo artikuluetan, eta 140 artikuluan. Baita ere Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, ezarritakoa.

Giza Baliabideetako Arduradunak 2020-12-11an txostena eman du

Horregatik guztiagatik, Udal honetako eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

\* Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público

\* Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

\* Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local

Visto lo dispuesto en los artículos 55 al 62 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, art. 47 y siguientes y 140 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y la contenida en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de las Entidades Locales de Euskadi

Visto el informe de la Responsable de Recursos Humanos emitido el 11-12-2020.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por



Batzarrak, aho batez, honako hau:

**E R A B A K I D U**

1. Onartzea Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako Udalen arteko lankidetza hitzarmena: **2020. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako lagunzei” buruzko deialdiaren inguruan lankidetza hitzarmena**, eba zpen honi eransten zaiona.

2.- Agindua ematea Lanbidek emandako diru-laguntzari dagozkion transferentzia hauek egin daitezen, behin diru-laguntzaren zenbatekoak jaso ondoren:

- PASAIKo Udal: 89.699,00 €
- OIARTZUNgo Udal: 99.092,43 €
- LEZOko Udal: 48.173,90 €
- Oarsoaldea: Zehaztuko den bitarteko propioari egindako enkarguaren arabera, diru-laguntzaren 704.508,14€ (356.508,14 € + 348.000,00 €).

3.- Hirugarren sektoreko entitatei diru-laguntzak emateko beharrezko izapideak egitea.

4.- Errenteriako alkateari, Aizpea Otaegi andreati, ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

5.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde mistoko udal ordezkari izendatzea Alazne Korta Zulaika Giza Baliabideetako zinegotzia eta M<sup>a</sup> Jose Sanchez Plaza Arduradun teknikoa.

6.- Erabaki honen berri ematea Pasaia, Lezo, Oiartzungo udalei eta baita ere, Oarsoaldea, S.A.ri.

este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**A C U E R D A**

1.- Aprobar entre los Ayuntamientos de Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia el Convenio de cooperación relativo a las siguientes convocatorias: “**ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2020**”. El convenio se adjunta a la presente resolución.

2.- Ordenar las siguientes transferencias correspondientes a la subvención de Lanbide, una vez se reciba el ingreso:

- Ayuntamiento de PASAIA: 89.699,00 €
- Ayuntamiento de OIARTZUN: 99.092,43 €
- Ayuntamiento de LEZO: 48.173,90 €
- Oarsoaldea: en base al encargo realizado al medio propio que se establecerá, 704.508,14€ (356.508,14 € + 348.000,00 €).

3.- Realizar los trámites necesarios para conceder subvenciones a las entidades del tercer sector.

4.- Facultar a la Alcaldesa de Errenteria, Sra. Aizpea Otaegi, para la firma del Convenio citado.

5.- Nombrar miembro de la comisión mixta para el seguimiento del presente convenio a la concejala de Recursos Humanos, la Sra. Alazne Korta Zulaika y a la Responsable técnica M.<sup>a</sup> Jose Sanchez Plaza.

6.- Comunicar el presente acuerdo a Oarsoaldea, S.A.



**3. Ematea 07/02 E.U. ALABERGAKO IBARRAN, 30 etxebizitza, garaje eta trastekuko eraikinerako lehen erabilerako lizentzia eta urbanizazio osagarria**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 18an erabaki zuen baimena ematea Felipe Gómez Arriaran-i, GAILUR RESIDENCIAL S.L. ordezkatzen duenari, **07/02 E.U. ALABERGAKO IBARRAN, 30 Etxebizitzez osatutako eraikina, garajeak eta trastekuak eta Urbanizazio osagarria egiteko**, Mikel Ochoa Ayerdi arkitektoak idatzitako “*Proyecto Básico 30 viviendas y garajes en U.I. Vaguada de Alaberga y Proyecto de Urbanización complementaria*” proiektuaren arabera eta dokumentazio osagarria.

Obrak amaitu ondoren, 2020ko urriaren 26an, Juan Ramón Ruiz de Arcaute Auzmendik GAILUR RESIDENCIAL S.L. izanean jarraian aipatzen den obra amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen:

1.- Obra Bukaerako Egiaztagiria, Mikel Ochoa Ayerdi sinatura (e)k , EHAEOak ikus-onetsia 2020/10/20e/an, hala nola Amaia Jauregui Beldarrain arkitekto teknikoak sinatura, Gipuzkoako AATEOak ikus-onetsia 2020/10/13e/an.

2.- Obraren behin betiko likidazioa, teknikari horiek sinatura eta EHAEOak ikus-onetsia 2020/10/20 e/an, hala nola Gipuzkoako AATEOak ikus-onetsia 2020/10/13e/an.

3.- Urbanizazio osagarria eta eraikinetako fatxadetako argazkiak.

4.- "Edificio de 30 viviendas con garajes y Urbanización Complementaria" Obra Bukaerako Dokumentazioa, Memoria, Planoak eta Ziurtagiriak, teknikari horiek idatziak eta EHAEOak ikus-onetsiak 2020/10/20e/an.

Eraikina ikuskatzeko bisita egin eta gero konprobatu da

**3. Concesión de licencia de primera utilización para el edificio de 30 viviendas, garajes y trasteros y urbanización complementaria en la U.I. 07/02 VAGUADA DE ALABERGA**

La Junta de Gobierno Local mediante acuerdo de 18 de julio de 2019 concedió a Felipe Gómez Arriaran en representación de GAILUR RESIDENCIAL S.L., licencia para la **Construcción de un edificio de 30 viviendas, garajes y trasteros y urbanización complementaria en la U.I. 07/02 VAGUADA DE ALABERGA** según “*Proyecto Básico 30 viviendas y garajes en U.I. Vaguada de Alaberga y Proyecto de Urbanización complementaria*” y documentación complementaria, redactados ambos por Mikel Ochoa Ayerdi.

Finalizadas las obras, con fecha 26 de octubre de 2020 Juan Ramón Ruiz de Arcaute Auzmendi en representación de GAILUR RESIDENCIAL S.L. presenta la documentación final de obra, consistente en:

1.- Certificado Final de Obra, suscrito por Mikel Ochoa Ayerdi, visado por el C.O.A.V.N el 20/10/2020, así como por el arquitecto técnico Amaia Jauregui Beldarrain, visado por el C.O.A.A.T. de Gipuzkoa el 13/10/2020.

2.- Liquidación definitiva de la obra, suscrita por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. de 20/10/2020 y del C.O.A.A.T. de Gipuzkoa el 13/10/2020.

3.- Fotografías de las fachadas de los edificios y de la urbanización complementaria.

4.- Documentación Fin de obra de "Edificio de 30 viviendas con garajes y Urbanización Complementaria", Memoria, Documentación Gráfica y Certificados, redactados por los mismos técnicos y con visado del C.O.A.V.N. 20/10/2020.

Realizada visita de inspección al edificio se



obrak bat dato zela aurkezturiko obra bukaerako dokumentazioarekin, non banaketan egindako aldaketa txikiak erakusten diren. Aldaketa horiek indarrean dagoen hirigintzako araudiarekin bat dator.

2020ko azaroaren 23an sinatu da 07/02 E.U. ALABERGAKO IBARRA-aren URBANIZAZIO OSAGARRIKO LANETAKO JASOKETA AKTA, Urbanizazioa loturik dago eskabidearen xedeko eraikinari.

Honekin batera doa "Eraikuntza eta Etxebitzta Estatistika" inprimakia behar bezala beterik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren 4/86 Legeak ezarritakoaren arabera.

2020ko azaroaren 25ean, Ramon Ruiz de Mendoza Udal arkitektoak lehen erabilpen baimenaren aldeko txostena egin du.

Hirigintzako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Udal Aholkulari Juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau:

#### ERABAKI DU

**1º.- Ematea** Juan Ramón Ruiz de Arcaute Auzmendiri GAILUR RESIDENCIAL S.L. ordezkatzen duenari **07/02 E.U. ALABERGAKO IBARRAN, 30 etxebizitza, garaje eta trastelekuko eraikinerako lehen erabilerako lizenzia eta urbanizazio osagarria**, aurkeztutako obra amaierako dokumentazioaren arabera eta erabaki honen azalpen zatian aipatzen dena, **honako baldintzakin:**

comprueba que las obras se ajustan a la documentación final de obra presentada, en la que se han reflejado pequeños cambios en la distribución. Estas modificaciones se ajustan a la normativa urbanística vigente.

Con fecha 23 de noviembre de 2020 se ha firmado el ACTA DE RECEPCIÓN DE LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN COMPLEMENTARIA DE LA U.I. 07/02 VAGUADA ALABERGA, urbanización vinculada a la edificación objeto de la solicitud.

También se adjunta el impreso de "Estadística de Edificación y Vivienda" debidamente cumplimentado, en función de lo establecido en la Ley 4/86 de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Con fecha 25 de noviembre de 2020 el arquitecto municipal Ramón Ruiz de Mendoza emite informe favorable a la concesión de la licencia de primera utilización.

Vista la propuesta de acuerdo del Delegado de Urbanismo y la conformidad dada por la Asesora Jurídica Municipal a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

#### ACUERDA

**1º.- Conceder a** Juan Ramón Ruiz de Arcaute Auzmendi en representación de GAILUR RESIDENCIAL S.L., **licencia de primera utilización para el edificio de 30 viviendas, garajes y trasteros y urbanización complementaria en la U.I. 07/02 VAGUADA DE ALABERGA**, según documentación final de obra aportada y que se hace constar en la parte expositiva, **con los siguientes**



**condicionantes:**

**Etxebizitzen ezaugarriak:**

30 etxebizitzak era honetan banatu dira:

**-Alaberga auzoa, 77 zk.: 15 etxebizitzak:**

- Behegaina solairua: 4 etxebizitza
- 1. solairua: 4 etxebizitza
- 2. solairua: 4 etxebizitza
- 3. solairua: 3 etxebizitza

**-Alaberga auzoa, 78 zk.: 15 etxebizitzak:**

- Behegaina solairua: 4 etxebizitza
- 1. solairua: 4 etxebizitza
- 2. solairua: 4 etxebizitza
- 3. solairua: 3 etxebizitza

Erdisoto eta Sotoko solairuetan 37 garaje plaza eta 30 trasteleku egokitu dituzte.

Baimen hau emateak ez dakar berekin jarduera eta irekitze erdisoto eta sotoko garajetarako baimena. Horiek tramitatu beharko dira indarrean dagoen legediaren arabera.

**2.- Dagozkien zergak ordainduko dira 3.277.134,75 eurotako zerga oinarrien arabera.**

**4. Hizkuntza prestakuntzaren eta normalizazioaren arloan Erreenteriako Udalaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erandundearen artean sinatutako hitzarmena berritzea.**

2020ko irailaren 29an Herri Arduralaritzaren Euskal Erandundeak (HAEE) komunikazioa igorri du Udal Hizkuntza Politikara jakinarazteko hizkuntza prestakuntzaren eta normalizazioaren arloan Erreenteriako Udalak eta HAEEk sinatutako

**Características de las viviendas:**

Las 30 viviendas se distribuyen de la siguiente manera:

**- Barrio Alaberga, nº 77: 15 viviendas:**

- Planta Entresuelo: 4 viviendas
- Planta 1<sup>a</sup>: 4 viviendas
- Planta 2<sup>a</sup>: 4 viviendas
- Planta 3<sup>a</sup>: 3 viviendas

**- Barrio Alaberga, nº 78: 15 viviendas:**

- Planta Entresuelo: 4 viviendas
- Planta 1<sup>a</sup>: 4 viviendas
- Planta 2<sup>a</sup>: 4 viviendas
- Planta 3<sup>a</sup>: 3 viviendas


En las plantas semisótano y sótano se han habilitado 37 plazas de garaje y 30 trasteros.

La concesión en su caso, de la presente licencia no presupone el otorgamiento de la licencia de actividad y apertura de los garajes del semisótano y sótano, que se deberán tramitar conforme a la normativa vigente.

**2º.- Se abonarán los correspondientes derechos municipales sobre la base de 3.277.134,75 euros.**

**4. Renovación del convenio suscrito entre el Ayuntamiento de Errenerteria e IVAP en materia de formación y normalización lingüística**

El 29 de septiembre de 2020 el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) remitió una comunicación al departamento de Política Lingüística Municipal para informar sobre la necesidad de renovar el convenio suscrito entre el Ayuntamiento



hitzarmena berritu behar dela. Izen ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriari jarraiki, aurrerantzean hitzarmenak ez dira automatikoki luzatuko eta lau urtean behin berariaz berritu edo luzatu behar dira. Lege hori indarrean sartu zenetik lau urte igaro direnez, orain da hitzarmen horiek berritzeko unea.

Sinatu beharreko hitzarmenaren eredua ere helarazi du.

Komunikazioari sarrera-erregistroa eman diogu:

- Erregistro zenbakia: 2020-00000014338
- Sarrera data: 2020.09.30

Euskararen erabileraaren normalizazioan indarrean dagoen araudiari jarraiki, Errenteriako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek "Errenteriako Udalean Hizkuntza Ofizialen Erabilera Normalizatzeko Plana. VI. Plangintzaldia (2018-2022)" onartu zuen 2018ko abenduaren 18an.

Hizkuntzen kudeaketaren inguruan jasotako planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideen artean, eta zehazki langileen hizkuntzagaitasuna kudeatzearen ingurukoen artean, normalizazio ekintzak jaso zituen Normalizazio Planak, hizkuntza prestakuntzaren gaineakoak, besteak beste.

Hori horrela, urtero langile batzuek HAEEl antolatzen dituen ikastaroak egiten dituzte, dela lanpostuak eazarria duen hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutelako, dela lan-hizkuntza izan dadin helburuarekin lanpostuak eazarria duen hizkuntza eskakizuna egiaztatua izan arren gaitasuna areagotu nahi dutelako.

Langileek ikastaroak egiteko eta haien eskolatzea

de Errenteria y el IVAP en materia de formación y normalización lingüística. De hecho, de acuerdo con la disposición adicional octava de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, los convenios no se prorrogan automáticamente y deben renovarse o prorrogarse expresamente cada cuatro años. Transcurridos cuatro años desde la entrada en vigor de esta Ley, es el momento de proceder a la renovación de dichos convenios.

Trasladó además el modelo de convenio a suscribir.

Se ha dado registro de entrada:

- Número de registro: 2020-00000014338
- Fecha de entrada: 30.09.2020

De acuerdo con la normativa vigente en materia de normalización del uso del euskera, la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Errenteria aprobó el 18 de diciembre de 2018 el "Plan de Normalización del Uso de las Lenguas Oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria. VI. Periodo de planificación (2018-2022) .

Entre los recursos necesarios para llevar a cabo el planteamiento recogido sobre la gestión de las lenguas, y en concreto sobre la gestión de la competencia lingüística de los trabajadores, el Plan de Normalización incluyó acciones de normalización, entre ellas la formación lingüística.

Así, cada año algunos trabajadores y trabajadoras realizan cursos organizados por el IVAP, bien porque no han acreditado el perfil lingüístico que tiene asignado su puesto de trabajo, o bien porque, a pesar de haber acreditado el perfil lingüístico, quieren aumentar su capacitación para que sea lengua de trabajo.,

La Junta de Gobierno Local aprobó el 21 de julio de



arautzeko Euskara ikastaroetara joateko irizpideak onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko uztailaren 21ean. Barne jarraibide edo zerbitzu instrukzio izaera duen dokumentua da eta indarrean dagoen legedia betez, Udalhitz hitzarmenak jarritako marko juridikoaren baitan, langileen eskubideak eta betebeharrok garatzen ditu.

Eskubide eta betebeharrok egikaritzeko eta normalizazioan dituen helburuak lortzeko, urtero Errenteriako Udalak Herri Arduralaritzaren Euskal erakundearen laguntza eskatzen du, antolatzen dituen ikastaroen bidez langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko edota haien hizkuntza gaitasuna areagotzeko.

HAEEk sinatzea proposatzen duen hitzarmenaren helburua da HAEERen eta Errenteriako Udalaren arteko harreman juridikoa finkatzea Ogasun eta Herri administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritakoetik aplikagariak direnei dagokienez. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da HAEEk Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua eta, bestetik, ezartzen dira euskara ikastaroetara doazen udal langileak ordezkatzenko dirulaguntzen arauak.

2020ko urriaren 2an Arantxa Zabala Huizi hizkuntza normalizaziorako teknikariak hitzarmena berritzearen aldeko txostena eman du.

2020ko azaroaren 20an Mari Jose Sanchez Plaza GGBBetako arduradunak hitzarmena berritzearen aldeko txostena eman du.

2020ko azaroaren 26an Iker Rokandio Etxeberria Udal aholkulari juridikoak txostena eman du adierazteko ez duela inolako oztopo juridikorik ikusten Udalak expediente an jasoa dagoen lankidetza hitzarmena sira dezan.

2014 los criterios para la asistencia de los trabajadores a cursos de euskera y para regular su escolarización. Se trata de un documento que tiene carácter de instrucción interna o de servicio y que, en cumplimiento de la legislación vigente, desarrolla los derechos y obligaciones del personal dentro del marco jurídico establecido por el convenio Udalhitz.

Para el ejercicio de sus derechos y deberes y la consecución de sus objetivos de normalización, el Ayuntamiento de Errenteria solicita anualmente la colaboración del Instituto Vasco de Administración Pública, con el fin de euskaldunizar y alfabetizar a su personal a través de los cursos que organiza o para incrementar su capacitación lingüística.

El convenio que propone suscribir el IVAP tiene por objeto establecer la relación jurídica entre el IVAP y el Ayuntamiento de Errenteria en relación con los que resulten de aplicación de la Orden de 30 de noviembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública. Mediante esta Orden se regula, por un lado, el servicio de formación lingüística que el IVAP prestará a las instituciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, por otro, se establecen las normas reguladoras de las subvenciones para la sustitución del personal municipal asistente a cursos de euskera.

El 2 de octubre de 2020 la técnica de normalización lingüística Arantxa Zabala Huizi informa favorablemente la renovación del convenio.

El 20 de noviembre de 2020 la responsable de RRHH Plaza, Mari Jose Sanchez, informa favorablemente la renovación del convenio.

Con fecha 26 de noviembre de 2020, el Asesor Jurídico Municipal, Iker Rokandio Etxeberria, ha emitido informe en el que manifiesta que no ve impedimento jurídico ninguno para que el Ayuntamiento suscriba el convenio de colaboración que consta en el expediente.



Kontuan izanik hitzarmenaren helburuak Erreenteriako Udalak dituen normalizazio helburuekin bat datozela,.

Udal Hizkuntza Politikako Zinegotzi Delegatuak egindako erabaki-proposamena ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako eskuordetutako eskuemenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau:

Teniendo en cuenta que los objetivos del convenio son acordes con los objetivos de normalización del Ayuntamiento de Erreenteria.

Vista la propuesta de acuerdo de la Concejala Delegada de Política Lingüística.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

#### E R A B A K I D U

Hizkuntza prestakuntzaren eta normalizazioaren arloan Erreenteriako Udalak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmena berritzea onartzea eta Udal Hizkuntza Politikako Zinegotzi Delegatuari sinatzeko ahalmena ematea.

#### A C U E R D A

Aprobar la renovación del convenio entre el Ayuntamiento de Erreenteria y el Instituto Vasco de Administración Pública en materia de formación lingüística y normalización lingüística y facultar a la Concejala Delegada de Política Lingüística para suscribirlo.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:35 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:35 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Erreenteria, 2020ko abenduaren 15a

Erreenteria, 15 de diciembre de 2020

#### IDAZKARIA

NAGORE SARASOLA OTERMIN



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2ae768a8-bae9-45e9-9787-53afe4071df5**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiazatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## **Sinaduren laburpena / Resumen de firmas**

**Titulua / Titulo:**

2020IGOB0025-AKTA/ACTA